




EAEko KPIa %2,6an kokatu zen abuztuan

EAEko KPI indizea
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: INE.

INEk argitaratutako azken datuen arabera, **abuztuan EAEko KPI indizea %2,6an kokatu zen, aurreko hilean baino hiru hamarren behe-rago**. Hain zuzen ere, aurreko urteko uztailetik izan duen mailarik baxuena da, erregaien merkatzean eta elikagaien kostu txikiagoan oinarrituta. Aitzitik, azpiko inflazioak gora egin zuen, %2,9tik %3,ora.

EAEko ekonomiaren termometroa 95,9an dago

EAEko ekonomiaren termometroa
Indizea




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Abuztuan, EAEko ekonomiaren termometroak 95,9ko balioa lortu zuen, eta hazkunde sendoko eremutik gertu zegoen oraindik. Zehazki, puntu erdi bat murriztu zen uztailearekin alderatuta, Europako koiunturak ez duelako EAEko industriaren dinamismo handiagorik ahalbidetzen, eta zerbitzuen hazkunde apaldu egin delako, enpleguaren moteltzea dela eta.



Uztaila arte 2024 enpresa sortu dira EAEn

EAEn eraturako enpresak
Urte bakoitzeko urtarriletik uztailera




Iturria: INE.

2024ko lehen zazpi hilabeteetan 2.094 enpresa eratu ziren Euskadin, aurreko urteko aldi berean baino %7,2 gehiago. Are gehiago, 2014tik izan den baliorik handiena da aurtengoa. Era berean, nabarmendu behar da urtarriletik uztailera bitartean jarritako kapitala oso esanguratsua izan zela, 117 milioi eurotik gorakoa.

Industriaren produkzioa %1,1 jaitsi zen uztailan

Industria produkzioaren indizea (IPI)
Urte bakoitzeko uztaila. Indizea



Iturria: Eustat.

Eustatek berriki argitaratu dituen datuen arabera, **Euskadiko industria jardura %1,1 murriztu zen uztailan, aurreko urteko aldi beraren aldean.** Jaitsiera horretan parte hartu zuten indizeko osagai guztiek, ekipamendurako ondasunak izan ezik, horien ekoizpena %1,3 handitu baitziren.